

A woman with a large, voluminous blonde wig and a bright pink, sequined dress stands on the left, looking to her right. A man with a grey beard and glasses stands on the right, looking towards the camera. They are positioned back-to-back against a dark background. The woman's hand is near her chin. The man is wearing a dark jacket over a light-colored shirt and is holding a yellow bag with a cartoon character on it.

Bidearen amaieran klub

Areto eta ezohiko espazioetarako komedia kabareteroa, gazte eta helduentzat.

hortzmuga teatroa

Antzerkiak gizarte, politika eta giza gai sakonak aztertzeko eta islatzeko aukera ematen digu. 35 urtetik gora daramatzagu kalean, aretoetan edo ezohiko espazioetan istorioak kontatzen. Ikus-entzulegoa entretenitzea eta hunkitzea bilatzen dugu, baina baita publikoarekin hartu-emana sustatzea eta haien kontzientzia astintzea ere.

Hortzmuga Teatroa



Sinopsia:

Hogei urte eman ditu Divina Pedreak bere sorterrira itzuli gabe. Hogei urte drag queen bihurtu eta Pedrín izateari utzi zionetik. Hogei urte bere aitak, Pedrok, ontziola batego sindikalista ohiak, etxetik bota zuenetik.

Baina gaur, Divina Pedrea Bilbora itzuliko da jaiotzen ikusi zuen klub berera, bere show handia aurkezteko asmoz eta lehen mailako artista bihurtuta. Edo hori uste du behintzat, Los Javisek film bat ekoitziko diotela amesten baitu berak...

Azkenik, aita-semeak berriz ere aurrez-aurre. Oraingo honetan, aldiz, Alzheimerrak aitaren bizitza mugatu eta drag lanbideak semearena definitzen du.

Bidearen amaieran Klub komedia kabaretero eta emozionala da; korapiloz, umorez, musikaz, dantzaz betea... eta sentimenduz josia.

Estreinaldia: 2024ko abuztuaren 17tik irailaren 1era Euskalduna Jauregiko Urban Hall aretoan, 2024ko Bilboko Aste Nagusiko egitarauaren baitan, Euskalduna Nagusia.



Pertsonaiak:

Pedrín:

38 urte. 20 urtetik gora daramatza jaioterria zapaldu gabe, familiarengandik urrun; gauzak ez baitziren oso ondo amaitu. Aitak, Pedrok, ez zuen ulertzen jakin. Bere ama Lolak ahal izan zuen guztia babestu zuen, hil arte.

Zurrumurruak, begiradak, esamesak, irainak eta eraso larriren bat neurrigabeko presioa bilakatu ziren soilik norbera izan nahi zuenarentzat. Egun batean, borondatezko sexilioa ihesbide hartu zuen arte. Harrezkerotik, LGTBIQ+ taldeko kide izatea eta drag queen bilakatzea izan ziren eguneroko borroka.

Zer dago Pedrínen bidearen amaieran?

Berarentzat, honako hau bidaiaren itzulera da. Norbera izateko joan eta izan nahi duen horren azalean bueltan etortzeko. Eta, gainera, bada adiskidetzea, barkamena edo ulermena, oinazearen eskutik bada ere. Baita ziurgabetasuna eta hasiera berri bat aitarekin.





Divina Pedrea:

Pedrínen alter egoa, artista polifazetikoa, drag queen profesionala. 20 urte daramatza publikoa erraztasunez barre eginarazten eta gozaarazten. Bere show itzela aitzaki eta edonolako areto, taberna eta klub anitzetan antzezten Espainia erdia zeharkatu arren, oso aldarte zailean dago orain; izan ere, adinak ez du barkatzen drag munduan ere. Azken aukera du bere show berriarekin punta-punta-ko bilakatzeko. Hortaz, jaiotzen ikusi zuen klubera itzul-tzea izango da bere aukera nagusia. Bere bizitzari buruzko serie batekin amesten du, Javiek egina.

Zer dago Divina Pedrearen bidearen amaieran?

Bere jaioterriko publikoarekin berriz elkartzea. Ihesi joan zeneko zirkulua ixtea. Katarsia eta iraganerako bidaia. Libre sentitu zen klubera itzultzea, non bere benetako nia onartu eta ospatu zuten. Itzulera fisikoa ez ezik, emozio-nala ere bai: identitatearen aldarrikapena.

Pedro:

Langile nekaezina eta erretiratutako sindikalista. Langile klasearen eskubideak jo eta ke defendatzen zituen, arauak hautsi gabe; aldiz, ez zuen jakin semearekin elkar ulertzen, ezta bere eskubideak defendatzen ere. Bizimodu normala nahi zuen, irizpide patriarkal eta matxistak ezarritako testuinguruak markatutako garaiko normaltasunean.

Alzheimerrak jota eta bizi den egoitzatik ihesi, itzulerako bidea egiten du bere etxearen bila, bere auzoaren bila. Oroitzapenak nahasten ditu eta, tarteka, jada hilda dagoen Lola emaztearekin eta Pedrín semearekin batera dagoeneko existitzen ez den bizitza bat berreskuratuko du.

Zer dago Pedroren bidearen amaieran?

Bere semearekin berriz elkartzea; infernura jaistea; ahaztutako barkamena eskatzea. Indarrez itzultzen zaion iragana, inbaditzen duten oroitzapenak, berreskuratutako maitasuna. Semearen ondoan bide berri bat eraikitzea, erraza izango ez dena eta ziurrenik ahaztuko duena.





Random Girls dantzariak:

Mamen: Helduegia artista izaten jarraitzeko eta artistegia helduago izateko.

Taula-gainean, bizipen sutsuak eta gorabeheratsuak bizi izandako dantzaria eta entretenimenduaren munduko klub ilunenetan eskarmentu handikoa. Mota guztietako ikus-entzule eta egoerei aurre egiten ikasi du, orbain emozionalak eta fisikoak metatuz. Orain, bere ibilbidearen ilunabarrean eta klub dekadenteetan eta bigarren mailako ikuskizunetan murgilduta, berak merezi duen glamourra duen show batean parte hartzea lortu du.

Zer dago Mamenen bidearen amaieran?

Hau da bere azken aukera bizitzak kendu dion duintasun apur batekin erretiratzeko. Bere ibilbide artistikoa etetear, Mamenek beste behin ere distira egitea espero du, Divina Pedrearen itzalean bada ere. Ikuskizun hau iragarriezina da, Mamen bezalaxe.

Chusa: Dantzari gaztea baina guztiz atipikoa da. Bere itxura sendoagatik behin eta berriz baztertua izan da, dantzaria izateko bere trebetasunean ez baitu inork sine-tsi luzaroan. Baina oztopoak oztopo, berak ez dio inoiz borrokatzeari utzi.

Zer dago Chusaren bidearen amaieran?

Aro berri baten hasiera da hau, eta, azkenerako, arrakasta handiko bilakatu daiteke merezi duen bezala dizdira egi-nez, besteek dantzari batengandik espero dutenera ego-kitu beharrik gabe.



Proiektu artistikoa: forma eta edukia

Komedia kabareteroa eta emozionala, non umorea, festa-giroa, musika, dantza eta dibertsioa bermatuta dauden. Nagusiki barre-algarak, malkoren bat edo beste eta gogoeta sustatzen dituen antzezlanak.

Konpromezua

Erantzukizun artistikoa eta dokumentazio-prozesu profesionala, Bilboko drag queen eta transformista profesionalen egindako elkarrizketen bitartez [\(ikus bideo-dokumentala\)](#).

Alzheimerra duten gaixoen senideekin topaketak, AFA Bizkaia Elkartearen bitartez.

Aktibismoa

Gero eta pertsona gehiagok pairatzen duten gaixotasun bat ikusaraztea: Alzheimerra. Alzheimerrak oroimena ezaba dezake, baina eta... oroitzapenak, sentimenduak, emozioak? Erantzuna, ikus-entzuleek deskubrituko dute.

Ikusgarritasuna

Gero eta pertsona gehiagok pairatzen duten gaixotasun bat ikusaraztea: Alzheimerra. Alzheimerrak oroimena ezaba dezake, baina eta... oroitzapenak, sentimenduak, emozioak? Erantzuna, ikus-entzuleek deskubrituko dute.

Publikoarekiko gertutasuna

Espazioaren antolamenduak klub bat gogoraraziko du, arratsalde-pasakoa, gauekoa baino gehiago; publikoarekiko konfiantza eta hurbiltasuna sustatu nahi da. Harrera zuzena, hurbila eta oso entretenigarria da Random Girlsen eskutik. Publikoa ikuskizunaren arte eta parte izango da, etxerako itzuleran honen eta aita-semeen arteko topaketa honen ezohiko lekuko bilakatuz.

Umorea

Umorearen tratamendu oso serioa. Izan ere, umorea, seriotasunez eta errespetuz erabiltzen denean, ez da soilik entretenitzeko tresna, baizik eta katarsirako, arau sozialak zalantzan jartzeko eta giza izaera esploratzeko bitartekari ahaltsua ere bada.

Urte askotan itzalean egon den show-mundua berpiztu duten aitzindarien egindako omenaldia, haien ibilbide artistikoak aldarrikapen eta borrokari esker gailendu dituzten artista guztiei.



Fitxa artistikoa:

Antzezleak:

Alex Antúnez, Gabriel Ocina.

Dantzariak:

Begoña Krego, Mar García.

Dramagilea:

Ángel Mirou.

Eszena-zuzendaria:

Izpiñe Soto.

Zuzendari laguntzailea:

Nerea Lorente.

Euskaratzailea:

Nerea Lorente.

Koreografia-zuzendaria:

María Martín (Krego-Martin Danza).

Eszenografia diseinua eta sorkuntza:

Oscar de Paz e Iñaki Aguinaga.

Jantziak:

Iban López.

Makillajea:

Kyle Cancelo.

Ile-apainketa:

Alicia Suárez.

Karakterizazioa eta makillajearen efektu bereziak:

Agar Martínez de la Higalda y Gorka Aguirre (I-REAL Make Up FX).

Soinu-munduaren sorkuntza eta soinu-zuzendaritza:

Ibon Aguirre.

Argiak:

Raúl Cancelo.

Soinua:

Iker González.

Komunikazioa:

Hirudika.

Diseinu grafikoa:

Vudumedia.

Argazkiak eta bideoa:

Curruscu.

Ideia:

Alex Antúnez.

Ekoizpena:

Hortzmuga Teatroa

Formatua:

aretoa eta ezohiko espazioak.

Publikoa:

gazteak eta helduak.

Iraupena:

90 minutu.

Hizkuntza:

gaztelania eta euskara.

Behar teknikoak:

- Espazio eszenikorako sarbidea 2m x 3m, oztoporik gabea.
- 2 korronte-hargune, 36A bakoitzeko.
- Konpainiak beharrezko material tekniko guztia darama berekin.



Divina Drag



Kritikak dio:

David Barbero:

"Ikuskizun berezi bat, anitza, osatzen dituen elementu ugarientatik (...) kabaret emozional gisa definitzen entzun dut, salaketa- edo aldarrikapen-pieza bat dela ere esan liteke (...) Ez da planteamendu hutsala eta arina, jaiegunetako egitarauetan gailentzen diren antzezlan gehienen antzera. Bere garapenean, emozio eta gatazka pertsonalen dosi handiko problematikak eta egoerak kokatzen dira (baina horiek kabaret-kutsukoak izateaz gain, musikal arineko egitura duen estalki batekin aurkezten dira (...) publikoari interpelazio ugari eginez.

Lan honetan, eskarmentu handiko profesionalak parte hartzen dute, dagoeneko adituen aitortza, trebetasuna eta jakituria artistikoa bere egin dituzten sortzaileak, alegia (...) ".

[Hemen artikulua:](#)

Pedro Barea:

"Kabaret eta music-hall baliabideekin, onarpen-arazo eta drama handi bati itxura friboloa ematen diona. Alex Antúnez generoan trebea, Diva da (...); eta Gabriel Ocina, aita komiko eta patetikoa, antzerako merituak merezita (...) "

[Hemen artikulua:](#)

Divina Pedrea



hortzmuga teatroa

Mirina Pedraza



HARROBIA

Bilbao-Otxarkoaga Ekoluzen
Eszenikorako Berrirakuntza Zentroa
Centro de Innovación en Producción
Escena de Bilbao-Otxarkoaga



INSULA CULTURAL

